

6.- MAHASGINTZA ETA ENOLOGIA BOLETINA / 2021eko IRAILA
IZURRITE ETA GAIXOTASUNAK

- **Internet bidezko asteroko oharrak :**
http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5505&Idioma=EU
 - **Erantzungailu automatikoaren bidezko asteroko oharrak (Maiatzaren lehen astetik aurrera): 94-4066879**
 - **Mahasgintza eta enología boletina.**
 - **SMS mezuak egoera berezietarako (gorrinen lehen mailako infekzioa, lehen orbanaren topaketa, txingorra...).**
- EDOZEIN KONTSULTARAKO DEITU DERIOKO LANDARE BABESERAKO ZENTRURA: 94-4541009**

2021eko irailak 9an, oraingo egoera fenologikoetan kontutan hartu beharko dira honako patogeno hauek:

BOTRITISA: mordoak heltzen dagozenez, tenperatura ertain-altuak eta hezetasun altuak gaixotasunaren garapenerako egokiak dira. **ADI: azken egunetako eguzkiak garau asko erre dauz. Hau dala eta kontutan izan garau hauek botritis fokoa izan leikezela.**

Erabili 2021eko Tratamendu Gidako **B taldeko botritisaren kontrako fungizidak** ta kontutan izan produktuen segurtasun epeak. Komenigarria da gaixotasun honen aurkako azken tratamendua batuketa baino 21 egun aurretik egitea, nahiz eta produktu batzuen segurtasun epeak laburragoak izan. **Zentzu honetan, adibidez Prolectus do Teldor produktuek 14 eguneko segurtasun epea daukie edo Switch, Astound eta Kenjak 21 egun.**
Gaixotasuna kontrolateko despunteak egitea eta mordoaren inguruko orriak kentzea komenigarria da.

GORRINA (MILDIU): Mordoak heltzen hasten direnetik aurrera (enberoa) ez dira sentikorrek gaixotasunarekiko eta sasoi honetatik aurrera **kobrea daramaten M3 taldeko ukipen fungizidak** erabiltzea gomendatzen da. Kobreak hostoetako infekzio barriak kontrolatuko ditu, egurra gogortzen lagunduko du eta usteldura azidoaren kontra (legamiak eta bakterioen kontra) eragin partziala eduki dezake.

USTELDURA AZIDOA: Usteldura azidoa legamia eta bakterioek sortzen dabe, *Drosophila melanogaster* eta *Drosophila suzukii*, ozpin eulien bidez. Usteldura azidoaren bereizgarria da ozpinaren antzerako usain azido gogorra ta mahatsak, mahats bilketa eragozten dauan azidotasuna hartzen dau. Heltzea hurbiltzen dan heinean, mahatsak usteltzeko joera hartzen dau. Ozpin euli honen kontrolarako tratamenduak prebentiboak izan behar dira eta normalean 7 eguneko segurtasun epea daukaten **insektizida piretroideak** erabiltzen dira. Kaltetutako mordoak kentzea ere komenigarria da.
Akaroein arazoak izan badira urtean zehar **EZ** da komenigarria insektizida piretroiderik erabiltzea.

EGURREKO ONDDOAK: Egurreko onddoen sintomak agertzen badira, gomendagarria da landare hauek **markatzea** orain, inausketa sasoiaren era desberdinean tratatzeko.

LANDAKETA LANAK.

Hostoak kentzea. Mordoaren inguruan hostoak kentzea komenigarria da tratamenduen eragina hobetzeko eta botritisaren eragina gitzitzeko.

Tratamendu-ekipamendua Ondo **doitu** mordoaren gainestaldura ona lortzeko.

MAHATS-BILKETA DATA ZEHAZTEA, Mordoetako azukrearen bilakaera kontrolatuko da refraktometro batez. Kopuru egoki bat hartzen dauanean eta mordoak osasuntsu daudenean bilduko da mahatsa. **Bizkaian landatutako hainbat barietateen heltzearen jarraipena egin zeinke web-ean irailak 13ko asteen argitaratutako dan “Mahatsaren heltzearen bilakaera” boletinean.**



HOSTOEN ANALISIAK:

Muestrak erroteko data: abuztuak 30etik irailak 3 arte.
Lekua: Neiker Derio
Ordutegia: 8,30-14.00
Prezioa analisisiko Bialtxa: 46,38 €+ BEZ
Prezioa analisisiko (bazkidea ez dana) : 66.25 €+ BEZ



- Peziolodun hostoa.
- 3-garren hostoa lehen mordotik gora.
- Bildu 30-60 hosto muestra eta bariedade bakoitzeko.
- Landare bakoitzeko hosto bat hartu.